

# Euskara ezin da zaila izan



**ARKAITZ ZARRAGA  
AZUMENDI**  
EUSKARA IRAKASLEA

**G**lotodidaktika VII. Topaketa burutu berri dugu UEUren 50. urteurrenaren ingurumarian. Aurrekoa orain dela lau urte egin genuen, Euskaltzaindiak Bilbon duen egoitzan eta erabakiak hartzeko aukera duten arduradun gehiagorekin. Hala ere, oraingoan elkarrekin hausnartzeko aukera gehiago izan ditugu eta emaitza bikaina izan da. Funtsean, VI. eta VII. topaketetan euskaltegiek euskara bigurutzetik (edo biribilgunetik) ateratzen laguntzeko gakoak mahai gainean jarri ditugula esan dezakegu.

VI.lean euskaltegien paperaz aritu ginen, eta argazkia ere egin genien. Egituraketa ez dela egokia adierazi zuten euskaltegiatako zuzendariak. Gainera, euskara lan-mundura eramaten izan beharko luketen papera eta zenbait plangintza jakinen baitan garatutako ekimen eredugarri batzuk aztertut ginituen. Horrez gain, ahozkotasanaren garrantzia eta ezaugarriak aztertu genituen metodologiarekin batera, eta argi geratu zen ahozkoan zentratu behar garela, erabileran eragingo badugu.

Aurtengoa atzera begira hasi dugu. Garai batean burua altxatu eta mun-

Bada garaia azterketei buelta bat emateko, ezagutzaren bermea lortzeko bide berriak jorratzeko (portfolioa...) eta ikasle tipologia zabalagoetara heltzeko

duan zeuden puntako joerak geurera egokitzeko ahalegina egin zuten bidegileei gorazarre egin diegu. Besteak beste, Paulo Freire ekarri zuten. Ekarpene hura aztertu dugu eta argi geratu da metodologia komunikatibo haren eta egungoaren artean antzekotasun nabariak daudela eta, beraz, badugula iraganetik ikasteko aukera garbia.

Geuk ere burua altxatzen jarraitu dugu, eta puntako ikerketak eta tresnak ekarri ditugu topaketa hauetara. Hasteko, 'Euskara' marka aztertu duten

euskal ikerlarien lana aztertu dugu, larritasunez ikusi dugu euskara "zaila" dela uste dutela askok, eta susmoa dugu euskaltegiok badugula errurik horretan. Azterketek erabat baldintzatzen dituzte euskararekiko loturak, baita irakasteko modua ere. Ikasleen ekarpenak ere jaso ditugu eta ondorio argiak irten dira hausnarketatik: bada garaia azterketei buelta bat emateko, ezagutzaren bermea lortzeko bide berriak jorratzeko (portfolioa...) eta ikasle tipologia zabalagoetara heltzeko.

Beste hainbat gai tekniko ere landu ditugu, eta argi dago baditugula puntakoak izateko nahikoa ezagutza eta ikeritzeko gaitasuna eta gogoia.

UEUko Glotodidaktika Sailean burua altxatzen jarraitzeko asmoa dugu, eta, besteak beste, euskalgintzaren ondoan dauden beste "bazterretatik" ikasten eta ekarpenak jasotzen hasiak gara. Adibidez, material didaktikoak eta jarduera akademikoak kolore askotako betaurrekoekin aztertu behar direla ikusi dugu, eta argi dugu horretan ere euskaltegiak aitzindariak izan behar garela, Freireren "zapalduen pedagogia" gogoan, egungo errealitatera itsatsirik. ●

**Basherrri**  
SAREA  
GRUPOKO KONTSUMO TALDEA ETA KOOPERATIBAK

**Elika gaitzen irizpideak kontuan hartuta eta amalurra zainduz**

655709043 | info@basherrisarea.eus